

# Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa

Ur Apalategi Idirin  
Letretan (Euskal Ikasketak) Doktore

Artikulu honen bidez gaur egun euskal esparru literarioan nagusi den “autonomiaren belaunaldi” deritzonak 70. hamarkadaren erditik aurrera eraturako euskarazko literatur eginkizunaren problematizazioa aintzat hartzen da, eta bereziki problematizazio horren irudi enblematikoa bilakatu den Bernardo Atxaga. Gure historia hurbilaren emaitza den ikuspegi hori egituratzen duen konzeptu giltzarria den “autonomia”-ren kritika soziologiko bat burutzeko asmoz, Atxagak 89-ko Sari Nazioanalaz geroztik egindako ibilbide literarioaren azterketa sozioanalitiko bat proposatzen da, hau da, idazle asteasuarraren azkenaldiko idazkien baitan aurkitzen den inkonziente soziologikoaren miaketa bat.

The paper analyzes the set of problems concerning the task of the literature created in Basque from the mid 70s on by the literary generation born around the time of the establishment of the “Statute of Autonomy”, the most prominent group in Basque literature nowadays. Special attention is paid to the figure of Bernardo Atxaga, who has become the symbol of that generation. With a view to developing a sociological criticism of the key concept of “autonomy” that lies behind the above mentioned prospective resulting from our recent history, the author develops a socioanalytical study of the literary journey made by Atxaga after winning the National Prize in Literature in 1989. An in-depth analysis is offered which examines the collective unconscious found in the latest works of the writer from Asteasu.

## 1. Aitaren etxea bereganatu zuen belaunaldiarena<sup>1</sup>

Gaurko literatur historiagintzan “autonomiaren belaunaldia” izenez ezagutzen den idazle multzo formalizatu (*Ustela*, *Pott*) zein informalairen partaide ezagunena eta sagaratuena dugu, zer duda, Bernardo Atxaga. *Anaitasuna* aldizkariaren 1975-eko otsaileko lehen zenbakian argitaratu zuten Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirrek euskal literaturaren problematizazio berri baten abiapuntu kanonikotzat jotzen den “Ez dezagula konposturarik gal, halare” manifestua<sup>2</sup>. Bi eskuz idatzia dagoela nabari bada ere –gerora Atxaga Izagirrerekin batera sortutako *Panpina Ustela* aldizkaria uztera eramango duten ezadostasunaren haziak manifestuan bertan aurkitzen dira ondo irakurriz gero<sup>3</sup>–, eta idazkiak ez badauka Atxaga transfugoaren inguruan sortuko den *Pott* taldetik laster isuriko diren formulazio askozaz ere zorrotzagoen zapore aratza, bertan agertzen da etorkizuneko euskal literatur esparru autonomoa zedarritzen duen “L” handi batekiko literaturaren berezitasun deuseztaezinaren lehen aldarrikapena:

[...] egungo argitara-etxe, aldizkari ta saioekin ez gatoz bat; hertsiaik eta *literaturaz kanpoko* (*extra-literarioak, beraz*) xederen morroi direlarik, marrantatu ta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte eztarri berriak.

Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa, *berezia*.<sup>4</sup>

Euskaraz idatziriko idazki mota guztiek osatzen zuten kontinente birjina eta uherrean, benetako aintzindari-kolonizatzaileok mugak eta bereizketak ezarriko dituzte Literatur-Koroaren izenean, Romulo eta Remo bailira euskal esparru literarioa fundatuz: «hau literatura da, beste hau ez da literatura», demiurgoaren esaldi magikoa.

Beranduago, ondorengo Trantsizio urte sargoritsueta testuetan, zehaztuko dute belaunkideek zein diren idazki bat literatur obra izatea galarazten duten irizpideak. Gauzak garbi eta bihurtunetik gabe esateko, bi dira, nagusiki, irizpideok, biak ere oso lotuta garaiko testu-inguru soziologikoari. Lehenik, ez da literaturan sartzen hizkuntzaren normalkuntza, hobekuntza, zaintza, hornikuntza edo horrelakoak helburutzat edo zio eragiletzat lituzkeen idazkia. Bigarrenik, ez da literaturan sartzen Euskal Herriaren eraikuntza nazionala nola edo hala laguntzeko asmotik eratorritako idazketa-ekintza militantetik jalgitako idazkia. Nork berea, politikariek politika eta idazle izena merezi dutenek literatura, beste hitz batzuetan: «hautsi da ANPHORA» (Atxaga 1978: 35).

---

1. Artikulu hau 1998-ko apirilean administratiboki Pabeko Unibertsitatearen barne dagoen Baionako Fakultatean defenditu zen Doktorego tesiaren zati batean inspiratzen da. Tesi hau ikuspegi sozioanalitiko batetik Bernardo Atxagaren lana bere osotasunean (1972-1997) interpretatzen saiatzen da. Frantsesez idatzita dago eta laster argitaratuko da jatorrizko hizkuntza horretan. Titulua honako hau da: “Evolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ universel. Socioanalyse du pathos atxaguien”.

2. Manifestu honen testua J.M.Torrealdaren *Euskal kultura gaur* (Jakin, Donostia, 1997) liburuak bere osotasunean dakar 342. orrialdean.

3. Manifestuari hasiera ematen dion ondoko baieztapena bezalakoek, «Literatura bait da herriaren boza: gizarte-aldaketaren lagungarri denez, beste Euskal Herri baten lorketa lagundu behar du eskaldunon literaturak», Izagirreren ziguila daramate eiki.

4. Guk azpimarratzen dugu.

Frankismoaren urte ilunetan egin behar politiko zein kulturalak txirikordaturik zetozen, inongo ofizialtasunik gabeko herri-mugimendu baten baitan, eta euskal idazleei Euskal Herriaren berpizte eta burujabetze politikoa ezinbestekoa iruditzen bazitzaien (besterik ez bada, norbaitentzat idazten jarraitu ahal izateko<sup>5</sup>) eta hortaz literatura eta militantzia gauza bakartzat bazeukaten, era berean sentitzen zuten garai hartako politikari ez-profesionalek kultur eragileen (eta hauen artean idazleen) beharra, besteak beste debekatuak zeuden mezu politikoak sinboloz mozorrotuta eta afektibitatez kargaturik herriari hel zekizkion. Euskal Herria, frankismoaren pean ez zen gizarte bat hitzaren zentzu osoan (hau da esparru instituzionalizatu handi bat zeinen baitan esparru espezializatu eta elkarrekiko autonomoak elkar-lehiatuko ziratekeen); ez, urte haietako Euskal Herria hurbilago zegoen isilpeko komunitate batengandik zeinetan politikaren eta kulturaren helburuak bereiztu-ezinak ziratekeen. Eta azken baieztapen honen frogarik garbiena, hain zuzen ere, euskalduntasunaren eragileen polibalentzia zen. Zenbat idazle-politikari (Krutwig, Txillardegi, Aresti) edo politikari-idazle (Monzon) ez ote dira ikusi hamarkada haietan? Trantsizioaren fruitu izandako Euskal Autonomi Erkidekoak, alabaina, portaera kultural zein politikoen eraberritze bat ekarriko du. Izan ere, bertako instituzioen sorrerak (balizko independentzia gertaera batetik eratorri izango zitzatekeen normalizazio osotik nahiko urruti geratuagatik) normalizazioaren bidean jarri zuen guztia, hots, euskal herri baten ideiatik euskal gizartearenera igaro ginen. Politikari profesionalen ahotsak adierazpen politikoaren monopolioa lortu zuen eta, bat-batean, kultur-mundua, aspalditik berea izan zen herriaren-nahien-bozeramaile papera kendu ziotela ohartu zen. Literatura panfletarioak ez zuen jadanik izaten jarraitzeko arrazoirik (salbu, noski, lortutako normalizazioa gutxiesten zutenentzat) politikariek beraiek ez zutelako gehiago beronen beharrik adierazpen askatasunak baimentzen zituen mezuak soineko sinboliko-artistiko-afektiborik gabe aurkezteko. Politika politikarien eskutan zegoen (batzuek esango dute politikeroa bihurtu zela) eta literatura bere buruarekiko galdeketa esistentzialesan murgildu zen urte batzuez: zertarako egin literatura? 80. hamarkadaren hasierako literaturaren “krisi” famatua ez zen beste ezer, euskal idazleak ez zeuden xede extra-literarioek eraginik gabe idazten ohituak. Noski, idazle gazte batzuk bazeramaten denbora bat literatura instrumentalizatu gabea egin behar zela aldarrikatuz eta Literaturak ez zuela inongo justifikazio ez eta baliagarritasun sozial zein erlijioso nahiz linguistikorik behar, baina ez al ziren aldarrikapen horiek basamortuan (Etiopiakoan, akaso?) egindako oihu antzuak?

Aurreko belaunaldiengandik jarauntsiz eta behartuta jasotako problematika literario zaharkituen aurka ezarriz idoroko du “autonomiaren belaunaldiak” bere nortasun propioa eta dagokion egin beharra. Hegoaldeko hiru herrialde erkidego autonomo gisa antolatzea lortzeko bidean jarri diren unean, euskal letren ikusmiran etorri-berriak diren idazle gazte hauek literaturak berak, herri zapaldu

---

5. Luis Haranburu-Altunak 1972an (Atxagaren lehen testu argitaratuak biltzen zituen testu-bildumaren sarreran) oraindik zera zioen, Euskal Herririk gabe ez zela Euskal Literaturarik lortuko. *Euskal literatura* 72, Lur, Donostia, 19. or.

6. *Ene Jesus* bere hirugarren eleberraren epilogoan Saizarbitoriak irakurlegoaren indiferentzia erabatekoa salatzen zuen kezka politikoek kutsatu gabeko obrekiko. Atxagak berak, 1982an *Susa* aldizkariari egindako adierazpenetan *Pott* taldearen ekoizpenek jasandako “boikota” –politikoa zela iradokiz– salatzen zuen taldearen desagerpenaren arrazoi nagusietako bat bezala (ikus, *Susa*, Donostia, 5. zkia., 1982ko apirila, 16. or.).

baten hizkuntza batukizun batean idatzia izan arren, berari dagokion autonomia gisa berean eskuratu beharra duela irizten dute.

Gure ikuspegia egun hegemonikoa bihurtu den belaunaldi horren ideiek eta jarrerak moldatu dutenez, zaila zaigu ulertzea zeinen mikatzak izan ziren urteetan emandako borrokak. Oroit bitez, kasu, maiz salatua izan den garaiko prentsaren axolakabekeria<sup>6</sup>, edota Txillardegirekiko 84ko polemikak idazlearen konpromisoa zela eta ez zela. Aitor dezagun 1989rako literaturaren autonomia defenditzen zutenen problematizazioa pixkanaka gaina hartzen ari bazen ere *Obabakoak* obraren sagaratzeak prozesu nekez horren bizkortze bat suposatu zuela eta ordura arteko belaunaldi ezberdinen arteko indar-oreka gatazka-eragile eta dialektikoa oroitzapenen armairura bidali zuela. Atxagaren Sari Nazionalaz geroztik, eta literatur-kritika unibertsitario sortu berriak (ez dena inolaz ere nahastu behar behialako kritika filologiko zein etnografiko nahiz linguistiko edo ideologiko tradizionalekin) asko lagundu du horretan, euskal literatur esparruaren baitan gunetasun eta nagusitasun hierarkiko automatikoa dakarren *literaturtasuna* antonomasiatz baxiluztan “autonomiaren belaunaldiko” kideei dagokie. Gainerantze-ko idazleak, hala aurreko garaiean hegemonikoak ziren literatura konprometituaren jarraitzaile ahulduak<sup>7</sup>, nola literatur eskenatokira azkenaldion igo diren idazle mulkoak<sup>8</sup>, esparruaren marjinetan mugitzen dira gauza berriak egin arren (bigarrenen kasuan bereziki), perzeptzio eskema hegemonikoa bihurtu den “autonomismoak” bere galbahean tankera bakarreko pipitak baizik ez dituelako gorde-zen, hots, dioxosozko belaunaldi horren kideek ekoizturiko pipitak.

Betiko kontua, historiaren errepikapena, sugea buztanari haginka. Marjinal izatetik hasitakoak, hegemonia lortzean joera hegemonikoak bereganatzen ditu. Eta Euskal Herrian literatur-kritikaren sortzea literatur esparru bereiztu eta burujabe baten agertzearekin bat etorri bazen, pentsa liteke kritikoen lehen belaunaldiak bere eginbeharra betetzat jotzen duela autonomiaren eragile izan diren idazleak (eta, ondorioz, literatur-kritikaren garapena ahalbidetu dutenak) behin eta berriro zilegiztatzearekin<sup>9</sup>. Bourdieu soziologoak (1984: 116-117) ederki azaldu duenez:

Ez da kasualitate hutsez izaten esparru baten eraketaren zantzurik ziurreneta-  
takoa [...] kontserbatzaile talde baten osatzea. Bizitzen –biografoak– eta obren  
–[kritikoak]– kontserbatzaileei esparruan ekoiztutakoaren iraupena asko axola zaie,  
kontserbatzea asko interesatzen zaie, eta aldi berean kontserbatzaile modura beraien  
buruak kontserbatzea ere.

---

7. Txillardegi, Azurmendi, Arrieta eta Aresti jo ditzakegu joera horren ordezkari nagusizat (toki eskasia dela-eta matizazio nahiko ez egitea barka bekigu). Ohar bedi Gabriel Arestik berak ere bere balio sinbolikoaren debaluazio bat jasan duela “autonomismoaren” gailentzearekin batera. Izan ere, autonomiaren idazleentzat Aresti aintzindari bat izan bazen (literaturtasun aratzarekin *flirt* bat eduki zuen olerkari bilbotarrak, batik bat bere ibilbide literarioaren hasieran –*Maldan behera*–) beranduago izandako joera konprometituak (abertzale eta marxista) literatur esparru autonomizatuaren proto-historiaren mugarri izatera mugatzen du ezagutzen zaion estatusari dagokionean.

8. Bi mulko bereiz ditzakigu, *grosso modo*: alde batetik X. Mendiguren, J. L. Zabala eta X. Montoia bezalako idazleak, 80. hamarkadan argitaratzen hasitakoak (hau da, *Obabakoak* saritua izan aurretik) eta bestetik 90etik aurrera idazten hasitako idazle gazteak (Lubaki Banda eta beste).

9. Pentsa lezake norbaitek hemendik, artikulu honetatik, kritikagintzan lankide ditudan ikerleak gainetik edo kanpotik epaitzen ari naizela. Bada, epaitu epaitu egiten ditut (behar-beharrezkoa iruditzen zaidalako etorkizunari begira gaurko kritikaren arazoak eta mugak agerian uztea), baina ni neroni ere kritikatuena multzoan nagoelako kontzientzia osoaz.

Hortik jarrera batzuen absurdua. Nola jarrai dezake, egun euskal esparru literario “autonomizatuaren” gailurrean koka daitekeen belaunkide ezagun, mediatizatu, ohoretu, gaztelerara itzuli eta mirestu batek, bere burua “heterodoxotzat” jotzen, aspaldiko diskurtsoari –garai bateko egoera zailean ulergarria– kakotxik ere aldatu gabe. Gaurko Fidel Castro iraultzailea den bezain heterodoxoak dira urrutitik ere *lost generation* baten partaide izateko itxurarik ez daukaten idazleok...

## 2. Atxagaren ibilbide eredugarria

Eredugarritasuna, zerbaitetik etortzekotan, bere jarrearen erradikaltasun erabatekotik datorkio Bernardo Atxagari. *Ustela* aldizkariaren diskurtsoari motelegia iritzi zionean –edo, agian, Saizarbitoriaren etorrerakin egiazki norabidez aldatzen hasi zenean<sup>10</sup> diskurtso hura– Bilbo kosmopolitarantz jo eta *Pott* sortu zuen. Hortik gutxira banketxe batean zeukan lanpostua utzi eta beste inork hor arte saiatu ez zuena egiten saiatu zen, alegia, idazle profesionala bihurtzen, euskaraz idatziz (eta hasieratik garbi utziz erdaraz idaztea eta argitaratzea euskal idazle batentzat zilegi zela). Nola ez ikusi Joxe Irazu gizabanakoaren abentura ekonomiko-biografikoaren atzean garrantzi handiko apustu sinbolikoa dagoela? Euskal literatur esparru bereizi eta burujabe bat osatzeko behar diren baldintza soziologikoak elkartzen ari diren une historikoaz baliatuz –ikastolen ugaltzea, horren ondorio zuzena den irakurle-klase alfabetatu baten merkaturatzea, euskararen ofizializatzea, euskal instituzioen babes juridiko eta laguntza ekonomikoaren aukera...– idazle asteasuarrak, literatura sistema baten ahalezkotasunean sinetsiz, epe labur, ertain eta luzerako apustua egiten du.

80. hamarkadaren hasieran, Atxagak aurreko hamarkadan landutako problematika abangoardista tragiko-ironikoa (oroitu *Ziutateaz* eta *Etiopia*, modernismo eta post-modernismoaren artean kokolan) eta problematika hark zemaion kutsu elitista eta hermetikoa alde batera utzirik ikuspegi pragmatikoagoaz ekiten dio autonomizatzeko prozesu pertsonal bati. Helburua ez da, jada, Aresti eta post-arestismoaren itzalarekin borroka literario edipoar nekagarria eramatea. Idazleak garbi dakusa autonomiaren oinarritzko baldintza merkatu egonkor batean aurkitzen dela. Ekonomikoki buruaskia denak baduke ahalmen gehiagorik *extra-literarioa* deritzon xede horren aurrean irmotasunez eutsi eta Literaturari leiala izaten jarraitzeko. Helduen artean jende alfabetatuaren kopurua txikia izanki, eta horien artean literatur-zaleak direnen kopurua are murriztagoa datekeela komentaturik, Atxagak hezkuntza sistema berriaren beharrek sortzen duten merkatuan dakusa irtenbide bat. Ezaguna da datua; gaur literatur esparruaren piramidearen puntan daudenetatik gehienak haur-literaturaren eskolatik igaro dira eta merkatu estu baina iraunkor horri esker erdietsitako erdi-profesionaltzeak lagundu die, neurri handi batean, beraien bokazio literarioari<sup>11</sup> jarraipena ematen.

---

10. Hori iradokitzen zuten Uria eta Iñurrietak aspaldi argitaratutako artikuluan (1982).

11. Aurreko belaunaldiez hitz egiterakoan zaila egiten bazaigu, salbuespenak salbuespen (Aresti bere manierara eta baita Mirande ere neurri batean) eta gerrareko idazle batzuen (Lizardi, Lauaxeta) hastapen itzaropentsu baina hilartuak kenduta, “bokazio literarioa” aipatzea, hemendik aurrera ordea, gehienbat autonomiaren belaunaldiak ekarri duen iraultzaren eraginez, posible da.

Atxagaren 80. hamarkada hasierako haurrentzako ipuinen lerro artean irakurtzen dakienak laster topo egiten du problematizazio berriaren aztarnekin. *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* ipuinean irakurtzera ematen zaigun alegoria, kasu, gardena da. Txarlese, Nikolasaren anaiak, Atxaga ordura arte izan den poeta elitista eta hermetikoa sinbolizatzen du (Atxaga 1980: 29-30).

Uste zuen, antza, zerutik zebiltzan hegazti guztiak bere inbiritan bizi zirela, berak bezalaxe egin nahi zutela egan. Eta pelean hasten zen edozein txorirekin okasioa bilatuz.

Urteetan Ringo Goringok hegazkinarekin goi-mailako batailetan jardun ostean ohera sartu eta *Elektromagnetikosis* izeneko liburuak bezalako gauzak irakurtzen pasatzen ditu egunak. Nikolasak, berriz, hamarkadaren egunsentiko Atxaga pragmatikoa sinbolizatzen du. Txarlesengana jo eta atean joka duten errealtatearen berri ematen dio anaiari (ibid. 34).

–Txarles, entzun arretaz! Gutun oso txarra etorri da!  
–Buelatu orduan, gutun txarrak ez zaizkit batere gustatzen... izan ere, Nikolasa, jendeari ondo izkribatzen ahaztu egin zaio!  
–Ez, Txarles, ez gutuna ondo izkribatua dago!  
–Orduan ez dago problemarik [...]

Eta Txarlese ez badu tutik ulertzen ere (ibid. 18):

Askoz ere gauza itxusiagoak ekarri [bait]zizkion gutun potxolo hark: fakturak, kriston faktura pila. “Zuk diru asko zor diguzu, zuk ezin duzu ezer erosi hemendik aurrera, zu eta zure etxeokak kiebra jota zaudete”.

Orduan, Nikolasak anaiari Ringo Goringo erabiltzeko baimena eskatzen dio (ibid. 43):

–Eta zertarako behar duzu Ringo Goringo ?  
–Landakandako azokara joateko, ailegatzen lehena izateko. Berdurak eta baratzeoko gauza guztiak saltzen badituz, dirutxo bat aterako dut, eta horrela zure liburuak salbu geratuko dira!

Txarles Ringo Goringo arreba pragmatikoari mailegatzeko konbentzitzen duen argudio bakarra horrela bere liburuak (Atxagaren bokazio literarioaren sinboloa bide direnak, hemen) salbu geratuko direlako itzaropena da. Eta esan beharrik ez dago, konstelazio sinboliko honetan Ringo Goringok hegazkinak idazteko ahalmena edo talentua ordezkatzeko duela, ipuinaren barnetik bertatik iradokitzen zaigun legez (ibid. 43):

[...] luma estilografikoak eta aireplanoak esku bakar batek ibili behar ditu bestela deskatxarratzen dira.

Atxaga berriaren ordezkaria den Nikolasak, Txarlese ez bezala ongi asko ikusi du literaturaren etorkizuna merkatua dela, edo ez dela ezer ere. Idazleak, bere “lana” modu egokian bete nahi badu lan-baldintza onen bila joan behar da, alegia profesionalizatzen saiatu behar da konkurrentziaren munduan sartzeko beldurrik gabe (ibid.).

–Jaun andreak, hau gauza! Patxi Nubolari eta Nikolasa Bits Baporux bat-batera ailegatu dira!

–Batean edo bestean, baina gure *negoziyuaren barreanean!*<sup>12</sup>

Atxagak 80. hamarkadan bizi duen egoerak, halere, problematika izaten darrai, ezen eta literatura *negoziyo* gisara biziitzea, haurrentzako ipuinen generoa lantzea eta literaturaren ez-politikotasuna aldarrikatzea bat badatoz (egia da, izan, haurrentzako idazten duenari nekez eska dakiokoela konprometitua izatea helduentzako idazleari eskatzen zaion neurri berean, eta egia da, baita ere, haur literaturarena dela hamarkadaren hasiera horretan benetan merkatu modura funtzionatzeko ahalmena duen sail bakarra), ez dugu aiantzi behar Atxagak helduentzat idazten jarraitzen duela eta helduentzako literaturaren sailean kokatuz gero bere idazkien “fantasia eskapista” (*dixerunt* kritiko batzuek) eta jarrera ekonomizistek bati baino gehiagori ileak harrotzen dizkiela. Konpromisoaren eta autonomiaren belaunaldien arteko gatazka orekaturik eta, hortaz, gori dagoen une hartakoak dira J.A. Arrieta konpromisozalearen honako ziztada hauek (Susa 1985: 11):

[...] badira esate baterako nik neuk frankotiradore-merkantilistak edo deituko nituzkeenak, *enfant terrible* post-romantiko marketineroak edo, ez abertzale eta ez anti-abertzale (beraz martzianoak edo) deklaratzaren diren listoak, baina beren lanak herri honetako abertzale tontoon kolektiboari salduz bizi direnak.

Arrietak badaki zerk egin diezaiokkeen min autonomiaren belaunkide bati eta, bi aldiz pentsatu gabe, argudio soziologiko ukaezin horri heltzen dio: euskarazko irakurleko helduaren gehiengo ideologiaz abertzalea da. Baliteke irakurleko abertzalearen zati gero eta handiagoak (belaunaldi berriaren bultzadaren eraginez) abertzale izaten jarraituagatik literatura konprometituarekiko zaletasuna galdua izatea, baina ukaezina dirudi, batzuek bestekoa eginez, literaturtasun aratza interesatzen zaion irakurleko mota hori gutxiengo bat dela oraindik eta orohar autonomisten kultura literario eta erreferentziak (Borges, Kafka, OULIPO eta beste) arrotzak egiten zaizkiola gehiengoari. Atxagaren topos estilistiko-tematiko obabarraren ezaugarri nagusietako bat den tristezia eskizofrenikoa (zeinen itxuratze literario behinena pertsonaia bikotearena den<sup>13</sup>) kontradikzio soziologiko horren ondorio zuzena litzateke. Hau da, komunitate abertzalearen sinbolo den Obabako norma sozial estuetatik kanpo bizitzen ahalegintzen den bikotearen osagaietako lehenak idazlearen burujabetze ideologiko eta ekonomikoaren xedea errepresentatuko luke –Daniel elbarritu gozozalea Atxaga idazlearen pulsio libidinal ekonomikoaren sinbolizapen bezala ulertu daiteke, Jimmy Potxolo hartza eta Nikolasa bezala– bikotearen bigarren osagaiak nagusiki abertzalea izaten jarraitzen duen irakurlekoarekiko atxekimendu edo lotura tragikoa eta masokista errepresentatuko lukeen bitartean –Paulo eta Irrien Zaindariari gustatuko litzaeie komunitatearekin bakean biziitzea, baina...–. Idazle autonomistak euskaraz idatzi nahi du bere obra baina irakurleko euskaldunak (hots, bere publiko potentzialak) ez du ulertzen zer den euskaraz idatzi arren helburu nagusizat ei daukan

12. Guk azpimarratzen dugu.

13. Pertsonaia bikoteak aldaki asko ditu 80.hamarkadako Atxagaren ekoizpenean. Hala nola, zerrendari mugak jarriaz, Paulo/Daniel, Margarete/Heinrich, Jimmy Potxolo/Irrien Zaindaria, CamiloLizardi/Javier-basurde eta semea. Kritiko askok ohartarazi duten gisara (Kortazar, Gabilondo, etb.), bikote hauen historia gehienetan trajikoa izaten da, bi osagaietako batek sakrifkatuturik bukatzen baitu.



*literaturtasuna*, eta are gutxiago ulertzen du *literaturtasun* hori lortzeko idazleari behar-beharrezkoa zaiola irakurleak berak lehentasun gisara ikusten dituen proiektu nazionala eta hizkuntzaren zaintza bigarren plano batean ezartzea.

Idazle autonomistaren psike eskizoidearen irudi literario den pertsonaia bikoteari obabar komunitateak (mundu abertzaleak) bere nortasunaren zati bat sakrifikatzeko eskatzen dio onesmen eta integrazioaren truke. Paulori Daniel herritik joan dadin eskatzen diote eta Irrien Zaindariari, berriz, Jimmy Potxolo auzotik uxatzen dezan. Eskatzen zaiena beteko ez balute komunitatetik kanporatuko lituzketela esanez mehatxatzen dituzte. Bikotearen osagai gaitzetsiak ordezkatzeko duen independentzia ekonomiko eta ideologikoaz bereiz dadin eskatzen zaio idazleari, idazle herrikoi, jator eta maitatua izatearen truke. Obabako ipuin hauen guztien bukaera patetiko zein tragikoak garbi erakusten digu Atxagak bere xedeari eusteko asmoa duela egiten zaion eskaintzari zuzengabea deritzolako.

Ezinezko aukera honen aurrean (bere nortasunaren zati bat sinbolizatzen duen pertsonaiarengandik bereizi onartua izatearen truke, ala nortasun problematiko horri bere osotasunean eutsi komunitatearen gorrotagai bilakatu arren) idazleak hirugarren bide bat hautatzen du: Literatura Unibertsalaren botere salbatzailearengan fede izatea. Mundu honetan (80. hamarkadako Euskal Herrian) onarpen, ezagupena edo arrakasta lortzeko itxaropenari uko egin eta Beste Mundua (Literatura Unibertsalaren paradisu) erdiesten saiatzen da Atxaga. Apustu ausart horren irudiak ditugu bai *Obabakoak* liburuko narratzaile nagusiaren erotasun literarioa (euskal literatur esparrua *Azken hitzaren bila* sekzioan egindako bidaia intertestual harrigarriari esker Literatura Unibertsalaren esparruarekin komunikazioan sartzeko ahalegin "eroak" darama narratzailea erotasuneraino) eta bai Paulo eta Danielen antzar bilakatzea (kontuan har bedi *Bi anai* liburuan zehar animaliak izan direla –eta hauen artean antzarrak– narratzaileak, alegia literaturaren ordezkariak). Salbazio literarioaren mekanismoa kristikoa da erabat. Xede *extra-literarioen* mende dagoen mundu ustel honetan galtzaile izateak Literatura Unibertsalaren mundu arantz eta benetakoa garaile izatea lekarke. Apustu hau Atxagak segurtasun erabat erlijiosoarekin dago: badaki, jakin, egunen batean euskal irakurlegoa (Euskal Herriaren normalizazioaren eraginez) benetan literaturzale bihurtzen bada, helburu politiko edo linguistikoak eta xede literarioak bereizten ikasiz, bere obrak (eta ez xede extra-literarioek kutsaturiko idazleenak) bilakatuko direla euskal literatur esparru autonomizatuaren ardatz kanonikoak. Atxagak bere artean darabilen galdera, *Obabakoak* idazten ari den unean, honakoa hau da: noiz gertatuko da aldaketa hori? noiz iritsiko da literaturzaletasuna euskal irakurlearen baitara?

Sari Nazionala egokitu aurretiko egoera aztertuz gero zera ageri da, Atxagak lankide dituen euskal idazleen artean eta beharbada irakurlearen zirkulu kultuoenetan fama handia badu ez dela gauza bera gertatzen irakurlearen zabalean. Joseba Sarrionandia belaunkidea, Atxagaren obra handia argitaratzen den urte horretan, askoz ere sartuago dago helduentzako literaturaren merkatua osatzen duen irakurle zabal eta herrikoian, popularitate hori gaizki-ulertu batetik badatorkio ere<sup>14</sup>. Datu ezaguna da, eta adierazgarria zinez, *Obabakoak*-en

---

14. Sarrionandia *Pott* taldearen partaide izan zen eta etengabe berretsi du literatura unibertsalarekiko eta literaturaren berezitasunarekiko atxekimendua –presondegian idatzitako *Ni ez*



euskarazko bertsiorearen salmentek Sari Nazionala erdietsi ondoren soilik egin zutela benetan gora.

### **3. Idazle autonomizatua, bere esparrua eta... bere beste esparrua.**

#### ***Ménage à trois***

Euskal literatur esparruaren autonomizatze prozesuari Atxagaren Sari Nazionalak emandako laguntza ukaezina da, Atxaga sagaratzuz literaturaren berezitasuna eta aratztasuna erradikaltasun handienarekin aldarrikatzen zuen autorea zilegiztatu delako. Atxagaren hasierako helburua, euskal literatur esparruaren barne-borroketa murgilduta zebilela erretako proiektua, euskarazko ekoizpen literarioa xede extra-literarioengandik (laburbilduz, hizkuntzaren normalizazioa eta abertzaletasuna) libratzea bazen eta horren gauzatzea literaturgintzaren profesionalizazio eta buruaskitze ekonomikoaren bitartez baizik lor zitekeelako ustea baldin bazuen, aitortu beharra dago Sari Nazionalak baldintza horien guztien elkartzea ahalbidetu diola, maila pertsonalari bagagozkio behintzat. Zeren maila kolektiboari bagagozkio (alegia euskal literatur esparruaren egoera berriari) Atxagaren Sari Nazionalak eragin kontraesankorrak sortu baititu.

Alde batetik, gorago esan den bezala, autonomiaren belaualdiaren ideiak sagaratzuz euskal sistema literarioa bere oinarrietan azkarturik atera da gerta-kizunetik. Literatur eginkizunaren berezitasuna ezagutzuz, euskal gizartea osatzen duten esparru ezberdinen artean (esparru politikoa, ekonomikoa, unibertsitarioa, etabar) nortasun propioa duen esparru gisara duintasunez esistitzea ahalbidetzen zaio literatur esparru gazte eta oraindik ahulari. Baina bestetik, euskal literatur ekoizpenen literaturtasunaren ezagupena literatur esparru espainolaren organu ofiziala den epaimahai madrildar batengandik jasotzeak zera dakar, euskal literatur esparruarenak ziren instituzio eta organu ezberdinen –Euskal Gobernuak antolatutako Sariak, euskal herriko kritika, bertako merkatuaren harrera– zilegiz-tapen indarraren ahultze erlatiboa. Zer balioko du, izan ere, hemendik aurrera Euskadi Sari bat zein Kritikaren sari bat jasotzeak Atxagak Madrilgo epaimahaiari esker lortutakoaren parean? Madrilen erabakitzen da (epaimahaikideek gaztelerara itzulitako bertsiok bakarrik irakurri arren!) zein den euskal idazleen artean “benetako idazlea”, hots unibertsaltasun literarioan parte hartzea merezi duena eta zein den idazle “lokala”. Izan ere, euskarazko komunikabideen indarra eta euskararen hedadura soziolinguistikoa hain dira txikiak non euskaratik gainerantzeko beste hizkuntzetara itzulia izateko (beraz, obra batek praktikan unibertsalizazioa erdiesteko) gazteleraren bitartekaritza ezinbestekoa suertatzen den (Atxagaren kasuak ongi frogatu duenez<sup>15</sup>). Baina itzul gaitezen Atxagaren kasu berezian Sari Nazionalak izan dituen ondorioetara.

---

*naiz hemengoa* liburua delarik (gai politikoa saihestu eta gai estetikoek arduratzeko erakusten duen ahalmenagatik) leialtasun horren frogarik hunkigarriena. Nahiz eta, Izagirrek bezala eta horretan Atxagarengandik urrunduz, Sarrionandiak Euskal Herriak lorturiko normalizazio politikoa gutxietsi eta hortaz euskal idazlearen konpromisoa ez absurdutzat jo, garbi dago idazle klandestino miresten duen irakurleagoaren zati handi batek ez dituela ulertu Sarrionandiaren benetako ibilbide eta mezu literarioak eta presondegitik ihes egitea lortu duen militante-idazlearen mito erromantikoa gehiago axola zaiola.

15. Jakin behar da, adibidez, ingelesezko zein frantsesezko Atxagaren liburuen bertsiok gazteleratik itzulita daudela eta, hortaz, lehen orrialdean ez duela inoiz ezartzen “euskaratik itzulia” baizik eta “gazteleratik itzulia”. Horren ondorioak zein diren asmatzea ez da zaila. Neronek aurten

1989az geroztik, espainiar literatur merkatuan eta nazioartekoan lorturiko barneraketa dela-eta, Atxaga idazle erabat profesionala dugu eta soilik euskal esparruan zegoenean bere autonomia mehatxatzen zuten indar faktikoek ezin dezakete dagoeneko oztopatu bere anbizioaren literaturtasuna. Zergatik diot “soilik euskal esparruan zegoenean”? Bada, egun Atxaga ez delako soilik euskal idazle bat. Idazle espainol bat ere badelako, eskubide osoz. Lertxundi, Saizarbitoria eta beste batzuen modura bere idazkiak gaztelerara itzultzeko ardura itzultzaile bati utzi izan balio “gaztelerara itzulia den euskal idazle bat” izango litzateke. Baina gaztelerazko bertsioak edo berridazketak bere gain hartzea erabaki duenez gero “aldi berean euskal eta espainiar literatur esparruetan eskuhartzen duen idazle” gisara kontsidera daiteke. Frantses liburu saltokietan idazle asteasuarra idazle atzerritar eta itzulien apaletan sailkatzen badute, Espainiar irakurlearentzat Atxaga ez da idazle “atzerritarra”, ez eta idazle itzulia ere.

90. hamarkadako Atxagaren berezitasuna, euskal idazle “normalarekin” erkatuz gero, bere ekoizpenak ukitzen duen irakurlearen aniztasunean datza. Idazterakoan, igurikimen horizonte zeharo ezberdinak dituzten bi irakurlego ditu gogoan: euskal irakurleagoa eta espainiar esparruko irakurleagoa<sup>16</sup>. Honez gero, Atxagaren mezu literarioaren hartzailea bikoitza da, eta irudika daiteke, zailtasun gehiegirik gabe, zeinen deserosoa den eguneroko bizitzan egoera gatazkatsu baten partaide diren irakurle multzo kontrajarriari aldi berean –eta testu bakar baten bidez– asebide literarioa eskaintzea. Merkatu espainolean sartzea euskal irakurlearen igurikimen horizonte hertsia eta politizatuegiarekin jasaten zuen dependetzia egoera gainditzeko baliagarria suertatu bada laster ohartuko da Atxaga literatur esparru espainiarreko irakurleagoaren igurikimen horizonteak ere baduela mugarik. Bi esparru ezberdinetan sarrera lortzea unibertsalizazioaren konkretizazioz jo daiteke baina horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, sarrera lortu den esparru horietako bakoitza bere aldetik eta bere barne-funtzionamenduan, ikuspegi unibertsalista baten zerbitzura dagoenik. Hau da, Atxagaren egoera unibertsalizatu egin da, baina ezin esan daiteke literatur esparru bat bere orokortasunean unibertsala denik. Literatur esparru nazional zein estatal ezberdinek batera osatzen duten meta-esparrua da unibertsala, esparru ezberdinek duten puntu amankomun bakarrean oinarritzen delako beraien arteko harremana, hots literaturtasunean. Espainiar literatur esparruaren baitan urte batzuetako esperientzia bildu ondoren, Atxagak “Reflexiones un tanto francesas” saio-ipuinean ilusio galdu batzuk plazaratzen ditu, ustez literatura unibertsalaren aterbea zen esparru espainiarraz kexatuz (Atxaga 1997: 85):

---

bizitako gertaera bat datorkit burura, txit esanguratsua. Lapurdin, Euskal Herrian beraz, Angeluko liburutegi munizipalean nengoela bertako langile batekin hizketan hasi eta Atxagaren zenbait obra irakurriak dituela aitortzen dit (frantsesez, noski). Exegeta atxagarra naizen aldetik haren iritzia interesatzen zait eta galdera batzuk egiten dizkiot bere “rezeptzioaren” nondik norakoak ezagutzeko asmotan. Orduan ohartzen naiz (zer harridura eta atsekabea nireak!) ez dakiela Atxagak euskaraz idazten dituela bere obrak... Atxaga “basque-espagnol” zela jakinarenean gainean, eta liburuan bertan ezerk ez baitzion adierazi obra jatorriz euskarazkoa zela, langile hark uste izan zuen Atxaga soilik espainolez idazten zuen idazlea zela.

16. Noski, denbora eta toki eskasiagatik ezin gaitezke artikulu honetan analisisa gehiegi luzatuko luketen zehaztapenak egiten ibili. Jakin bedi, halere, kontuan hartu beharko liratekeela Euskal Herriko irakurlego erdaldun elebakarra eta nazioarteko irakurleagoa. Arazo hauen garapen xeheago baten premia nabari duen irakurleak kontsulta ditzake laster argitaratuko den gure Doktoretza Tesiaren azken bi kapituluak.

[...] en la mayor parte de los países del mundo el Ministerio de la Educación concibe la literatura como literatura “nacional”, y obliga a millones de escolares a estudiar una historia de la literatura que siempre es de España y sólo de España, o de Francia y sólo de Francia, marginando completamente los cursos donde se enseñaba la Historia de la Literatura Universal.

Sari Nazionala (Espainiakoa) egokitu zitzaionean egindako adierazpenekin parekatu behar dira 1997ko hauek. Garai hartan Atxagak etengabe errepikatzen zuen, elkarrizketatzen zuten komunikabide guztietan, berak ez zuela inolaz ere idazle nazionala (Euskal Herrikoa) izateko asmorik<sup>17</sup>. Zer gertatu da bi deklarazio hauen artean? Nola iritsi da Atxaga espainol esparruaz behiala euskal esparruaz zioena esatera, hau da, literaturaren ikuspegi nazionalitario baten mende dagoela? 1989 eta 1997 artean gertaturikoaren kontakizuna izan nahi lukete ondorengo artikuluko honen azken orrialdeok.

Kontatuko dizueguna euskal literatur esparruarekiko pixkanako urrunketa baten istorioa da, besteak beste. Goazen pausoz pauso. 1991an argitaratutako *Behi euskaldun baten memoriak* Sari Nazionalak indarberritu eta horditutako idazle batek bere jatorrizko esparruari egindako diosala humoretsu eta distantzia-tua da. Atxaga euskal esparruaren gailurrera eraman du *Obabakoak*-en sagaratzek, eta, literalki, euskal bizitza politikoaren mendean bizi diren idazleen “tropeletik” bere ausardia eta indibidualismoari esker irtetzea lortu duen idazle-behiaren abentura zoriontsua<sup>18</sup> eskaintzen digu. Tituluak itzulpenean jasandako mozketak txikia –“euskaldun” izenlagunaren desagerpena– ongi adierazten digu hasiera batean, seguraski, Atxagak euskal irakurlegoa baizik ez zuela buruan liburu hau idazterakoan.

Egoera oso ezberdina da *Gizona bere bakardadean* eleberriaren kasuan. Idazki honek, ondorengo guztiek bezala (*Horas extras* salbu<sup>19</sup>), irakurlego potentzial bikoitzaren presentziaren aztarna darama. Eta testu bakar baten bitartez bi irakurlego kontrajarrien igurikimen horizonteei erantzuteko beharra aurkitzen da, zer duda, idazkiei darien tentsio romaneskoaren iturburua. Autoreak eleberriaren prestakuntzaren gogoeta-fasean bere buruari egindako galderen artean honako hauek leudeke: zer aukera tematiko da egokiena aldi berean euskaldunen interesa eta espainol esparruaren jakinmina kitzikatzeko? Nola kendu gainetik *Obabakoak* saritzearekin batera bizkarrean espainolek jarri didaten idazle regional eta exotikoaren etiketa anti-unibertsalista?<sup>20</sup>

---

17. *El Mundo* egunkariari 1996-ko uztailaren 21-ean emandako elkarrizketaren titulua adierazgarria da: “Yo no soy el escritor nacional de Euskadi”.

18. Obabako mundu ilunean portaera indibidualaren bidea aukeratzen zuten pertsonaiek bukaera tristea ezagutzen bazuten –Obaba jasanezina zen bere hertsiduragatik baina Obabatik kanpora ez zegoen irtetzerik basamortua eta heriotzarekin topo egin nahi ez bazen–, Mo behiak, aldiz, komunitate-tropela atzean utzi, eta baseritik kanpo, jaioterritik urruti dagoen Literatura Unibertsalaren monasterioan ezagutzen du bere ausardiaren sari den *Happy End*-a. Nola ez haztatu, nagusiki euskal esparruari begira idatzitako bi obra hauen arteko aldean, Sari Nazioanalaren egokitzeak eragindako Atxagaren birbalorizazio hierarkikoaren zantzuak?

19. *Horas extras* gazteleraz bakarrik argitaratu da eta ez du euskal bertsiorik ezagutu.

20. Komeni da ez ahaztea Atxagak «yo no soy el escritor nacional de Euskadi» espainolez eta *El Mundo*-n ahoskatu duela, eta hori esatean euskal esparruak jasanarazi nahi liokeen nazionalizazioaz gain espainiar esparruak jasanarazi nahi dion regionalizazio exotikoaz ere beldur dela. Horren frogak

Bi esparruetan interesa piztu dezakeen gaia “euskal arazoarena” da, zer duda, eta zehazkiago E.T.A. erakunde armatu hiper-mediatizatuarena (zeina batzuentzat mito bat den eta besteentzat *fantasma* beldurgarri bat –bortxaketaren fantasma arketipikoaren gisakoa–, hitzaren zentzu psikoanalitikoan). Idazle baserriar-magiko-identitarioaren zamatik libratzeko, aldiz, egokiena ahozko literaturatik hurbilegi dagoen ipuinaren generoa utzi eta eleberri konbentzional eta hiritarrera igarotzea litzateke. Eta bi galdera-erantzunen batuketak zer emaitza dakar? Bada, *Gizona bere bakardadean* eleberria den “thriller politikoa”. Ondorengo urteetan idatziko dituen beste bi eleberri laburrak –*Zeru horiek* eta *Sara izeneko gizona*– *Gizona bere bakardadean*-ek aurkezten duen paradigma problematikoaren garapen eta bariazioak dira. Topos estilistiko-tematikoaren osagai nagusiak, paradigma estetiko berriaren batasuna zertzen dutenak, bi obra hauetan ere huts egin gabe agertzen dira: euskal arazo politikoa (Irene preso politiko bat da, eta Martin Saldias lehen karlistaldian Zumalakarregiren zerbitzuan dabilen agente sekretua da), eta genero romaneskoa, loditasun biografiko jakin bat daukan pertsonai nagusi indibidualista baten problematika esistentziala irakurtzera eramaten gaituena.

Aukera estetiko berritzaile honen bidez Atxagak harri bakarraz bi txori jotzea espero du. Espainiar literatur esparruko lehia literarioaren goiko partean kokatu nahi du, errazegi eta *Obabakoak*-en mezu unibertsalista alderantziz ulertuz ezarri dioten idazle-etnografo ospe kaltegarriaren epe laburreko abantailei uko eginez, eta, une berean, politikoki ambigua den eleberri bat eginez euskal zein espainiar esparruekin gorde nahi duen distantzia azpimarratu nahi du. Anbiguitate horren gauzatea aukera narratologiko jakin bati zor dio Atxagak. Izan ere, 1993 arteko atxagar literaturaren ezaugarri nagusienetakoa narratzaile *intra-*, *homo-* ala *intra-homodiegetikoaren* erabilpena zen<sup>21</sup>. Hau da, bere literatur lanetan narratzaile-pertsonaiak edo pertsonaia-narratzaileak agertzen ziren eta berauen ikuspuntu beti ere esplizitatuak irakurleak testuan irakurtzera ematen zitzaion istorioaren aurrean hartu behar zuen portaera bideratzen zuten. *Gizona bere bakardadean* eleberriaz geroztik instantzia narratiboa deritzona desgorpuztu egin da eta irakurlea eta istorio edo *diegesis*-aren arteko harremana zuzena bilakatu da (alegia, arartekorik gabea). 90. hamarkadako testu atxagarraren joera narratologiko honen emaitzarik aipagarriena testuaren anbiguitatea da, noski. Ziutateko zein Etiopiako nahiz Obabako kontakizunen irakurleak ongi ezagutzen zuen narratzaileak

---

dugu *Horas extras* bilduman, igarotako urteen esperientziak ematen dion distantziaz, egiten duen oharra: «[...] los escritores nacidos en lugares pobres suelen ser por lo general de talante democrático y amantes de la gastronomía, el deporte y otras manifestaciones populares, y porque, además, ésta es la razón fundamental, no les [queda] otro remedio que recurrir a esa materia. Al fin y al cabo, ¿De qué van a escribir los escritores nacidos en una aldea de Marruecos o, personalizo, del País Vasco? Raro sería que, al menos en sus primeros libros, dieran en hacer metaliteratura o novela de campus al estilo de Oxford. Más raro sería aún que el mercado editorial europeo, o el mismo público, aceptaran que uno de esos escritores hiciera lo que los escritores de la metrópoli. ‘Ya tenemos novelas intelectuales, novelas sofisticadas, novelas vanguardistas’, diría la metrópoli a través de su coro de voces, ‘lo que necesitamos es literatura de la memoria, noticia de otros lugares marginales. Un poco de exotismo, por favor, o en su defecto, literatura reivindicativa, la historia de lo mucho que sufren en su país bajo la bota del dictador’» (Atxaga 1997: 43).

21. Dagoeneko klasikoa bilakatu den narratologiari dagokion hiztegi tekniko hau G. Genette poetikalari frantziarrari zor diogu. Xehetasun gehiago nahi duenak kontsulta beza *Figures III* (Paris, 1972).

pentsatzen zuena kontaktzen ari zitzaigun istorioaz (nahiz eta, 70. hamarkadako lanetan narratzaileen biderkapen eta aniztasunak, liburu bakar batean, berriro ere, neurri batean bederen, liburuak bere osotasunean eduki zezakeen zentzua indeterminazio gune bihurtu). Nork defenda lezake, aldiz, irakurleak Karlos E.T.A.-kide ohiaren istorioari buruz instantzia narratzailearen bitartez argi eta garbi jasotzen duela iritzi bat? Liburuak irakurleago ezberdinetan izandako harrera kontraesankorrek nahikoa adierazten dute narrazioaren objektibizatzeak ez duela interpretazio bakar eta ziurrik iradokitzen, ezta gutxiago ere.

Estrategia ez da, alabaina, arrisku gabea eta E.T.A.-rena bezalako gai bero eta eztaidakorra aukeratuz esparru bietan lorturiko sarrera zapuztea gerta daiteke kontu eta zolitasun handiaz jokatzeko ez bada. Erraza zaigu, hau guztia ulertu ondoren, Karlos gizon bakartiak eratzen duen jarrera izkutakor eta anbiguoan Atxaga berak bi esparruekiko bizi duen problematika zailaren irudi bat gordetzen dela asmatzea. Hemendik aurrera, Karlos-Atxaga eta/edo Irene-Atxagak presioa egiten dioten bi literatur esparruekiko bere nortasun eta independentzia babestearren asmatzen duen jokaeraren nondik-norakoak agerian ezartzen saiatuko gara.

Karlosek Jone eta Jon militanteak Bartzelonako hotelaren okindegiko sotoan gordetzeko hartzen duen erabakia Atxagak berak tupustean E.T.A.-ren gaia bere literaturan sartzearen sinbolizapena bailitzan irakur liteke. Erabaki horren bidez Karlosek “bizimodu berri bat” hasteko xedea gauzatu nahi badu<sup>22</sup>, beste horrenbeste esan daiteke Atxagari buruz –azken honek Obabako ipuin erruralista magikoetara mugaturik aurkitzen den idazle izateari utzi nahi lioke tematikaren norabide aldaketa bortitz horren bitartez–. Haatik, talde armatuaren gaia erabiltzeak ez du inolaz ere esan nahi autoreak E.T.A.-ren aldeko jarrera agertzen duenik. Atxagak esparru espainolak –gero egiazki gertatuko den moduan– terroristen irudi baikor bat aurkeztea leporatuko balio “ez naiz politika egitera etorri, literatura egitera baizik” erantzun lezake, Karlosen hotelean egoitza hartu duten futbolari poloniar “komunisten” entrenatzaileak prentsari zera ziurtatzen dion modura, ez direla politika egitera etorri futboleko jokatzera baizik. Karlos eta Jone militantearen arteko elkarrizketek Atxagak aukeratu duen gai arriskutsuak baldintzatzen duen problematikaren berri ematen digute. Jone, kasu honetan, Atxaga eta Sari Nazionalaz geroztik asteasuarraren literaturak jasan duen berkapitalizazio sinbolikoa patrimonializatu eta bereganatu nahiko lukeen euskal esparru literarioaren sinbolizapena bezala ulertu behar litzateke<sup>23</sup>. Hona zer diotson Karlos-Atxagak Jone-euskal literatur esparruari (Atxaga 1993: 40):

Ez gaitezen haserretu [...] Orain gorde zaituztet, eta ondo, hala egin behar nuela iruditu zitzaidan eskatu zenidatenean. Baina erabakiak ez du betirako balio. Behar

---

22. «Proba pasatuz gero, orduan bai, orduan bai ekin ahal izango ziola bizimodu berriari», *Gizona bere bakardadean*, 110. or.

23. Euskal literatur esparruak Atxagarengan bat-batean ikusi duen “seme kuttuna”rekiko duen jarrera posesiboaren adibide ugarietariko bat dugu Xabier Mendigurenek *Gizona bere bakardadean*-en argitalpenaren inguruan darabiltzan gogoetak: “Une honetan [euskarazko bertsioa argitaratu da baina ez oraindik gaztelarazkoa], halere, geure-geurea dugu [eleberria] –zentzu patrimonialista barkatzen badigu [Atxagak]– eta munduko zalapartatik urrun, intimitatearen patxadan dasta dezakegu”. In “Atxaga gure artean”, *Jakin*, Donostia, 80. zkia., 1994-ko urtarrila-otsaila, 92. or.

bada hurrengoan ez zaituztet berriro hartuko. Hori ondo ulertu behar duzue. *Ni ez naiz organizaziokoa*. Sentitzen dut baina hala da.<sup>24</sup>

Atxagak ez du naziorteko nahiz Espainiako literatur eszenatokian euskal literaturaren enbaxadore ofiziala bihurtu nahi. Oraingoan E.T.A.-ren gaia (eta beraz, euskal arazoa) erabiltzea erabaki badu, euskalduntasunaren idazletzat hartua izateko arriskua hartuz, hain zuzen hori besterik ez du egin, bere interes pertsonalentzat gaia “erabili”. Izan ere, gaiak potentzial komertzial nabarmena dauka eta modernoa, politikoa eta hiritarra izanki ez dario inolako kutsu etnografikorik; beraz aproposa dirudi Atxagaren irudi aldaketa gauzatzeko.

Euskal literatur esparruak, bere aldetik, oso bestelako gogoetak darabiltza Atxagari buruz, edo behintzat Atxagak berak horrela irudikatzen ditu gauzak, Joneren kalkuloei bagazozkie (ibid. 39):

Gizon honi izpi bat falta zaio berriro organizazioan sartzeko, horregatik onartu zuen Jon eta biok hemen izkutatzea. Eta guri oso ondo etorriko litzaiguke berak pauso hori ematea, zeren munduan den tapaderarik onena baitauka bere esku, hotel bat Barcelonatik kilometro gutxitara eta jende errea gordeta mantentzeko ideiala [...] Oso kaptazio ona litzateke, azpiegitura problema asko soluzionatuko litziguke [...]

Kontua da, euskal literatur esparruak Atxagaren ezusteko ezagupena esparruaren berbalorizazio orokorra izan dadin nahi lukeela. 90. hamarkadaren senti honetan oraindik Sariak euskal mundu literarioan erne dituen itxaropen gehienek zutik diraute –ondoko urteetan beste euskal idazle batzuk esparrutik atera eta unibertsalizatzeko eginiko saioetan jasandako porrotak gauzak baretu ditu eta Madrilgo epaimahaiari begira jarri zen esparrua berriro itzuli da bere barne-garapen potentzialari begira normalagoa dirudien dinamika batera– eta Atxaga agertzen da “azpiegitura problema asko soluziona” litzakeen zerutik eroritako laguntza bezala. Atxagak horrela bizi du egokitu zaion egoera eta errezeloz begiratzen die bere buruaz baliatu nahi luketen horiei. Horregatik Joneren proposamen sexualen atzean –euskal literatur esparruak Atxagari egiten dizkion goresmenen irudi– interes izkuturen bat aurkitzen delako susmoa dauka (ibid. 40):

Bai, beharbada neskak ere organizazioan pentsatuz eta interesatuki jokatzen zuen beti.

Atxagak urteetan euskal literatur esparruaren erdeinua jasan du –bederen horrela sentitu du bere literaturtasunaren aldeko borrokari euskal irakurlego eskuarki “politizatu eta abertzaleak” eman dion erantzun axolagabea–, eta bihotzean landaturik daukan arantza horrek ez dio uzten euskal esparru horrekin harreman konfiantzazkoak bizitzen. Irene, *Zeru horiek* eleberri laburreko pertsonaia nagusia, Karlosen antzera militante ohia da –90. hamarkadako idazkietan hainbeste errepikatzen den pertsonaien militante-ohi nortasuna<sup>25</sup> zilegi

---

24. Azpimarraketa geurea da.

25. Martin Saldias ere (*Sara izeneko gizon bat*, Pamiela, Iruñea, 1996), bizi duen abenturaren bukaeran karlismoaren militante-ohi bilakatuko da, Bilboko Cafe-Arenaleko emakumearekin joatea erabakitzen duenean. Antonio de Murgia (Atxaga 1996b), bere aldetik, erregeari presondegitik barkamenak eskatzen dizkion lapur damutua da.

da, gure aburuz eta aukeratu dugun interpretazio sozioanalitikoaren ildo honi jarraipena emanez, Atxagaren euskal literatur esparruaren autonomiaren aldeko behialako borrokarekin parekatzea. Bere familia politikoa izan den mundu abertzalearekin Irenek daukan harremana guztiz neurotikotzat jo daiteke, Atxagak berak bere familia izan den euskal literatur esparruarekin duen harremana bezala. Alde batetik Bilbora itzuli nahi du eta bestetik Bartzelona aldean –Atxagaren arrakasta editorialaren hiria eta Espainiar estatuko argitaletxe indartsuenen egoitza– egindako aukera dela-eta euskal munduak traizioa leporatuko diolako beldur da. Irenek definitzen du hobekien Atxagari hamarkada honen erdialdean euskal esparruak iradokitzen diona (Atxaga 1995: 69):

Lagun bati maitasunik gabe lotuta egotea benetako kondena bat zen, tortura isil eta sarkorra.

#### **4. Merkatua = autonomia, ala merkatua *versus* autonomia?**

Sari Nazionala egokitu zaionez geroztik Atxagak ez ditu jadanik bere borroka literarioak euskal esparruan soilik kokatzen. Problematika eusko-euskaldunaren aroa amaitu da Atxagarentzat, halabeharrez. Espainiar literatur esparruan eta, orohar, nazioartean lorturiko tokia defendatu behar ditu hemendik aurrera eta hortaz bere problematika ezin izan daiteke euskal esparruan bakarrik mugitzen den idazle batena, baizik eta euskal esparru marjinaletik abiatuta nazioarteratzea lortu duen idazle batena. Baina Atxagak euskal esparruan zegoenean beti literaturaren ikuspegi unibertsal eta ez-nazionalitarioen aurka egin badu logikoa dirudi, koherentea behintzat, nazioarteratzea lortzean ez bere gain hartzea euskal esparruaren interesen defendatzaile kargua. Literatura bat da, unibertsala, eta ezin diezaioke mugarik ezarri Atxagari ez jatorrizko euskal esparruak ez eta bere baitan idazle espainol gisara onartu berri duen espainiar literatur esparruak ere.

Alabaina, eta gorago iragarri dugunez, Atxagak jasaten duen presioa ez dator euskal esparrutik soilik. Karlosen abentura paranoikoak ondo erakusten digu idazlearen autonomia gutziatu eta preziatua mehatxatzen duten indarrak bazter guztietatik datozela, eta beraz baita espainiar esparruaren irudi liratekeen hotelaren inguruan etengabe usnaka ari diren guardia zibil miatzaileengandik ere. Euskal Herriarekiko kezka politikoek pozoindutako bizitza horri ihes egin nahi lioke Karlos-Atxagak, nahiz eta horrek «burgesez ttiki batek gelditzen zaion tomate saltsa igurtzitzeko erabiltzen duen» ogitxoak egiten jarraitzea suposatu, hots literatura lotura extra-literario guztietatik aske ekoiztu nahi luke, literaturaren ikuspegi artesau eta komertzial despolitizatu bati men eginez<sup>26</sup>. Eta hortxe dago Atxagaren urteotako bilakaera problematikoaren koxka. Egia bada alde batetik merkatuaren

---

26. Atxagak literaturaz duen ikuspegia ez da dagoeneko 70. hamarkadan zen bezain abangoardista eta elitista. Aitzitik, bat-batean euskal esparruko milaka batzuk irakurle potentzialetik nazioarteko milioika irakurle potentzialentzat idaztera igarotzerakoan Atxagak benetako konbertsio estetiko bat jasan du. Literatur eginkizunaren komertzialtasunari ez beritzo kaltegarria. Atxagaren konbertsio estetikoaren teorizatzaile hoberena idazlea bera da eta Galeuzkaren topaketetan azaldu zituen bere ikuspegi berriaren zergatiak eta nondik-norakoak “Norentzat idatzi, gehiengo ala gutxiengo batentzat?” titulu esanguratsuaren pean emandako hitzaldian. *Galeuzka* aldizkaria, Iruñea, 1991, 109-114. or. Hitzaldi horretan, besteak beste, Atxagak dio bere burua Patricia Highsmith-en tankerako idazle batengandik hurbilago sentitzen duela Baudelairen jarrera omen zenarengandik baino.



legea onartzeak xede extra-literarioen presioa gainetik kentzeko indarra ematen diola idazleari –ekonomikoki buruaski izanki ez baitu, teorian, inoren eskakizunen aurrean makurtzeko beharrik–, bestalde, merkatuaren legea bere horretan onartzeak ondorio zuzen bat dakar euskal idazle ororentzat: profesionaltze eta buruaskitze maila gorena eskaintzen duen merkatua ez da inoiz izango euskal literatur esparruarena. Maila etiko batean ezein indar politiko edo politizaturen –Atxagaren jabetza sinbolikoa lortzeko lehian dabiltzan esparru literario etsaituak– mende geratu nahi ez duen idazlea, maila praktiko batean, zoritxarrez, merkatu handi eta aberatsenaren masa erraldoiak grabitazio indarra bailitzan erakarriko du bere ingurunera. Hori bera da Atxagari *Obabakoak*-en sariztapenetik aurrera gertatuko zaiona.

Atxagaren euskal merkatu eta esparru estuekiko pixkanakako urruntzearen faseak erraz bereiz ditzakegu. *Obabakoak* gaztelerara itzuliz hasten da. Ondoren *Gizona bere bakardadean* bi irakurlego ezberdin izango dituelako segurtasunarekin pentsatu eta idazten du idazleak. *Sara izeneko gizona* jadanik ez dakigu ondo ia euskaraz idatzi duen lehenik ala alderantziz (idazleak berak prentsan argitzen duenez, lehenik euskaraz, ondoren gazteleraz eta azkenik errepasso berri bat euskarazko bertsioari). Horrez gainera, gaztelerazko argitalpena euskarazkoari aurreratu zaio liburudendetan, «argitaletxeen arteko koordinazio falta zela-eta» (*dixit* Atxaga); eta datua sinbolikoa baizik ez bada ere, denok dakigu sinboloa baino gauza mingarriagorik ez dagoela. Azkenik, *Horas extras* ipuin eta gogoeta bilduma gazteleraz bakarrik idatzi du autoreak –ez luke zentzurik euskaraz– eta gaztelaniaz baizik ez da argitaratu gaurdaino.

Atxagaren autonomia politikoa ezin daiteke dudan jarri. Bere burua, bere ibilbide literarioaren hasieratik bertatik gainera, idazle gisara aurkeztu du, zeinen eginbehar bakarra literatura ahalik eta hobekien egitea den (“kaliaitearen borroka” aipatzen du maiz idazleak), ezein indar extra-literarioen zerbitzuan inoiz jarri gabe. Eta profesionaltzea, literatur-egilearentzat, askatasun horren garantia bat bezala ikusi du beti Atxagak. Jakina da diruak ez duela usainik... itxura batean.

Orain ordea, azkenaldion idazle asteasuarra merkatuaren poderioz euskal esparrutik ia oharkabean urrundu egin dela ageri da, nahiz eta etikoki Atxagak ez duen inoiz bere literaturaren kontzepzio unibertsalari atxekitako esparru nazional ezberdinekiko neutraltasuna hautsi adierazpen publikoen bidez.

Noski, istorio honetan guztian galtzaile nagusia den euskal esparrua bera da urrunketa hortaz lehenik ohartu eta kexatzen hasten dena. *Euskaldunon Egunkarian* argitaratutako bi artikulak abandonatua izan denaren sentipenak zeharkatzen duen esparru euskaldunaren (esparru kulturala bere orokorrean) berri

---

26. Atxagak literaturaz duen ikuspegia ez da dagoeneko 70. hamarkadan zen bezain abangoardista eta elitista. Aitzitik, bat-batean euskal esparruko milaka batzuk irakurle potentzialetik nazioarteko milioika irakurle potentzialentzat idaztera igarotzerakoan Atxagak benetako konbertsio estetiko bat jasan du. Literatur eginkizunaren komertzialtasunari ez beritzo kaltegarria. Atxagaren konbertsio estetikoaren teorizatzaile hoberena idazlea bera da eta Galeuzkaren topaketetan azaldu zituen bere ikuspegi berriaren zergatiak eta nondik-norakoak “Norentzat idatzi, gehiengo ala gutxiengo batentzat?” titulu esanguratsuaren pean emandako hitzaldian. *Galeuzka* aldizkaria, Iruñea, 1991, 109-114. or. Hitzaldi horretan, besteak beste, Atxagak dio bere burua Patricia Highsmith-en tankerako idazle batengandik hurbilago sentitzen duela Baudelairen jarrera omen zenarengandik baino.

zehatza dakarkigute. Ines Intxausti telebista-kritikariak (1997: 33) tonu mingotsean erkatzen ditu Atxagari euskarazko katean hitzegiten duelarik darion urduritasuna eta ETB-ren kanal erdaldunean hitz egiterakoan nabari zaion erabateko naturaltasuna:

Pantaila aurreko perspektibatik ez zuen ematen Joxerra Garziak eta Hasier Etxebarriak elkarrizketatu zutenean bezain estu eta deseroso [...] zegoenik [Atxaga]. Eta arazoa, berriz, ez zetzan aipatutako bi aurkezleen izenetan baizik eta Bernardo maite-gorroto-desio-beldurtzen duen euskal audientzia munduan [ETB1-eko audientzia euskalduna].

Azkenean [ETB2-an] berak nahi zituenek entzungo zioten. Eta ez betiko inbidioso erresuminduek [...].

Bere aldetik, Pako Aristi (1997) literatur-egile gisara mintzo zaigu eta gaztelaraz bakarrik kaleratu den *Horas extras* ipuin-saio bildumaren argitarapenaren kari egiten ditu etsipenez zipriztindutako honako gogoeta hauek:

Gehiago harritu nau, ordea, beste gauza batek: Euskal Herrira bidaiatu balu bezala idazten du 'entzun genuen', 'esan ziguten' eta ezagutza maila horretan kokatuz bere informazioa, eta ez bertan bizi denaren moduan, gauzak sentituz, gozatuz, sufrituz. Ikuspegi periferikoa da. [...] liburua gehien bat Espainia mailarako dago enfokatua printzipioz, baina Euskal Herrian bi komunitate daude, euskalduna eta gaztelaraduna, eta, oro har, hizkuntza bakoitzak errealtatearen ikuspegi ezberdina ematen du. Gaztelaradunei ez zaie euskaraz egindako ezer axola, Atxaga salbu. Nik uste [Atxaga] zubi interkultural bakarra dela gaur egun Euskal Herrian, eta horregatik are mingarriagoa zait bere konformismoa: gaztelaradunen komunitateari beste errealtate bat deskubritzea lagundu beharrean, komunitate horrek aurrez baduen ikuspegi epel bat bermatzen duelako. [...] Ez dakit horregatik den, baina iruditzen zait aspaldian euskarazko komunitatean ez direla Atxagaren idazkiak, ideiak, proposamenak gehiegi komentatzen.

Atxaga ere egoeraren arrarotzeaz konturatu eta azalpenak eta bere buruaren zuritze saioak biderkatzen ditu prentsari eginiko adierazpenetan. 1993an, jadanik, Joxemi Saizarri eskainitako elkarrizketa batean euskal literatur esparruarekin bizi duen ez-ulermen egoerak kezkatu agertzen zaigu:

Gazteentzat idatzi nuen *Behi euskaldun baten memoriak* liburua oso gaizki tratatu dute Euskal Herrian, eta erdal munduak oso ondo. Hemengo kritikak irakurri nituenean kolpea hartu nuen.<sup>27</sup>

Elkarrizketa berean kazetariak gaztelaraz idazteko balizko tentazioari buruz galdera egiten dioenari, Atxagak bihurtune dialektikoetan sartu gabe deblauki eta zintzoki erantzuten dio (ibid.):

Erdal mundura ez pasatzeko benetako indarra eduki behar da eta ideia batzuk buruan, bestela nik uste dut pasatuko nintzatekeela. Zergaitik? Oso deigarria delako alde askotatik, ez bakarrik diru aldetik. Gozotasun gehiago jasotzen da euskal mundutik baino [...] Atzo aurkitu nuen testu liburu bat. Bi liburu dira eta berrogei idazleren testuak egungo irakurgai bezala. Zein aukeratu ote dute nireak? pentsatu nuen

---

27. Bernardo Atxagaren adierazpenak, in Joxemi Saizar, "Bernardo Atxaga: arazo politikoak ez dio herriari arnasarik hartzen uzten", *Argia* aldizkaria, Donostia, 1456, 1993-11-7, 34.

nire inozentzian, nire harrotasunean hori pentsatu nuen. Hartu, eta denak zeuden, eta ni ez.

Hiru urte beranduago, Atxaga eta bere jatorrizko esparruaren arteko distantzia gutxitu ordez areagotzen joan dela dirudi, idazlearen pesimismoak aditzera ematen duenez:

Zoragarria litzateke hor meatoki bat bilatzea, alegia, arrazoi sendo bat aurkitzea euskaraz idazten jarraitzeko.

Okerrena zera da, inertziaz bada ere nagusiki gaztelerez (eta espainiar esparruari begira) idaztera daraman profesionalizazioaren eta merkatuaren barne-logika horrekin bat doala esparru berrian Atxagak jasaten duen politiziaziorako "gomita" (nolabait eta eufemikoki esateko). Atxaga zuzenean itzuliko balute euskaratik ingelesera edota frantsesera arazoa ez litzateke esistituko, ezen eta espainiar merkatuari obra bat euskal arazoarekiko anbiguo eta sentiberegia irudituko balitzaio, kasu, gainerantzeko merkatuetan aurkituko bailuke idazleak espainiar esparruaren merkatal-zentsura ikustezen baina beldurgarria saihesteko modua. Tamalez, dela itzulpen arazo batengatik (nork itzuliko luke *Obabakoak* zuzenean euskaratik suomi hizkuntzara?), dela merkatu gehienentzat tradizio literario luzea duen espainiar esparru handi eta entzutetsuaren onespen kritikorik gabe zaila delako irakurri ezin duten obra baten itzulpena ordaindu eta argitaratuz arrisku komertzialak hartzea, kontua da *gaztelera*zko *bertsioaren bitartekaritza ezinbestekoa zaiola, momentuz, euskal idazle bati mugak eta merkatuak zeharkatzeko*. Erraz ondoriozta daiteke, beraz, bere obrei literaturtasunaren labela (beraz profesionaltze ekonomikoa, beraz teorikoki autonomia) emateko boterea duen espainiol esparruarekin Atxagak *dependentzia* egoera bat bizi duela. Eta euskal literatur esparrua bere osotasunean hartzen badugu, gaztelaren eta espainiar kritiko edo epaimahaien bitartekaritza mugak gainditzeko ezinbestekoak diren bitartean, paradoxaren paradoxaz literaturaren autonomiaren ideologiaren garaipena segurtatu duen Saria bera da (espainiar esparrutik datorrenaren aldetik eta ez euskal sistema literarioaren barne-instituzio eta sarien eskutik) mota berri bateko *heteronomizazio* berri baten tresna.

Diruak badu bai, kasu honetan, usain bat. Azken hamarkadako Atxaga ez dago soilik merkatu logika tradizional batek dakarren sorkuntzaren irizpide estetikoaren komertzializazio baten arriskupean (gai erakargarriak, suspensea helburu bakartzat duten narrazio teknikak, estilo irakurterraza eta zaporegabea, estandarizazio estetikoa, etab.). Harrigarria badirudi ere, euskal esparru politikoaren influentziapen bizi zen euskal esparru literarioaren autonomiaren alde eraman duen borroka luzean garaipena espainiar esparruak eman dio. Baina esparru honek duen merkatuaren erakargarritasun indarra dela-eta (eta batez ere esparru honen bitartez hunkitzea lortzen duen nazioarteko merkatu erraldoiaren erakargarritasuna dela-eta), beti ere merkatutik kanpo utziko luketen espainiar literatur esparruaren epaiketa *politikoa*<sup>28</sup> saihestearren egiten dituen etengabeko ahaleginak kontuan hartuz, 1972-an euskal literatur autonomizatu gabean bere ibilbide literarioaren abiapuntuan ezagutu zuen egoerara itzuli da: bere eginkizun

---

28. Zurrumurrur oso hedatuak diotenez *Gizon bere bakardadean* eleberriak espainiar esparruan sari bat galdu zuen azken orduko gogoeta *extra-literarioak* zirela-eta...

literarioa eta anbizio unibertsalistak oztopatzen dituen literatur esparru txit politizatu batera.

Irene-Atxagak berarentzat beti presondegi baten antza izan duen euskal literatur esparru estutik ateratzearen truke ordaindu beharreko prezioa uste baino garestiagoa suertatu da azkenean. Bilborako bidean, autobusean aurkitzen den poliziak Irene leihatilaren kontra estutu eta askatasuna (buruaskitze ekonomikoa eta euskal esparru literario politizatuarekiko autonomia) zenbait zerbitzuren truke eman ohi dela azaltzen dio (Atxaga 1995: 118):

- Zer nahi duzu– esan zion berak [...]
- Zure kolaborazioa behar dugu. Gurekin lan egitea nahi dugu.
- Horri esaten zaio garbi hitzegitea.

\*\*\*

Artikulu honen helburu nagusia azken hogeita bost urteetan euskal literatur esparruaren ardatz problematikoan gune izan diren autonomia, heterodoxia eta antzeko zenbait konzepturen erlatibotasuna eta konplexutasuna azaltzea zen eta neurri batean bederen eztabaidari ekarpen positibo bat egitea lortu delako itxaropenaz eteten dugu gogoetaren haria, Atxagaren problematikak ondoko urteetan ezagutuko duen bilakerari kirika.

## Bibliografia<sup>29</sup>

- Apalategi Idirin, U., (1995): *Personnage atxaguien et dialectique de l'enchâssement dans OBABAKOAK de Bernardo Atxaga*, Maîtrise-eko Tesina (Lettres modernes), ekaina, Université Michel de Montaigne - Bordeaux III, Département de Littérature Comparée, 208 or.
- , (1996): *L'Evolution de la problématique de l'écrivain Bernardo Atxaga : du champ littéraire basque au champ littéraire universel*, D.E.A.-ko xedea, ekaina, Université Michel de Montaigne - Bordeaux III, 84 or.
- , U., (1998): *Evolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ littéraire universel. Socioanalyse du pathos atxaguien*, Doktorego Tesia, apirila, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 697 or.
- Aristi, P., (1997): "Ordu estrak", *Egunkaria*, Andoain, 1997-9-5, 2. or.
- Atxaga, B., (1976): *Ziutateaz I-II*, Kriselu, Donostia, (berrargitarapena, Erein, 1986).
- , (1978): *Etiopia*, Pott liburutegia, Bilbo, (berrargitarapena Erein, Donostia, 1988).
- , (1980): *Nikolasaren abenturak eta kalenturak*, San Roman, Bilbo, (Elkar, birrargitalpena, 1987).
- , (1984): *Jimmy Potxolo*, Erein, Donostia.
- , (1985): *Bi anai*, Erein, Donostia.
- , (1988): *Obabakoak*, Erein, Donostia.
- , (1991a): "Norentzat idatzi, gehiengo ala gutxiengo batentzat?", *Galeuzka*, Iruñea.

29. Gure azken urteotako ikerketa-lanaren oinarri eta berme den bibliografia detailatu eta osoa lehenago aipaturiko Doktorego Tesiaren amaieran aurkitzen da (645-692 orrialdeetan zehar), eta lau atalez osatzen da: 1. Atxagaren idazki literarioak; 2. Atxagaren artikulu edo saio teorikoak; 3. Bibliografia teoriko orokorra; 4. Atxagari buruzko artikulu eta liburuak, bai Euskal Herriko prentsan eta bai atzerrikoan (idazleari egindako elkarrizketak barne).

- , (1991b): *Behi euskaldun baten memoriak*, Pamiela, Iruñea.
- , (1993): *Gizona bere bakardadean*, Pamiela, Iruñea.
- , (1995): *Zeru horiek*, Erein, Donostia.
- , (1996a): *Sara izeneko gizona*, Pamiela, Iruñea.
- , (1996b): “Antonio de Murgiak esan zuena”, Ed. Koldo Mitxelena Kultur-unea, Donostia.
- , (1997): *Horas extra*, Alianza, Madril, 1997.
- Bourdieu, P., (1984): *Questions de sociologie*, Minuit, Paris, 1984.
- , (1992): *Les règles de l'art*, Ed. Seuil, collection Libre examen, Paris.
- Gabilondo, J., (1991): “Obabakoak. Alegoria topologiko baten irakurketa politiko”, in Lakarra, J. (arg.): *Memoriæ L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Ed. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1257-1281.
- , (1993): “Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan. *Etiopiaz*”, *Egan* XLV, 2, 33-65.
- , (1994): “Modernismoaren jarauntsia euskal literaturan: Obabakoak”, *Egan* XLVI, 17-62.
- , (1996): “Atxagaren psikoanalisisa: literatura, subjektibitatea eta esfera publiko garaikideaz zenbait ohar”, *Egan* XLVIII, 1, 61-79.
- Genette, G., (1972): *Figures III*, Seuil, Paris.
- Intxausti, I., (1997): “Bernardo Atxaga *Formumean*”, *Egunkaria*, 1997-9-9, 33. or.
- Kortazar, J., (1986): “*Bi anai*: errugabearen eskaintza”, *Jakin* 39, 147-151.
- , (1992): “El inicio de la fantasía”, in *Literatura vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia, 133-137. or.
- Mendiguren Elizegi, X., (1994): “Atxaga gure artean”, *Jakin* 80. zkia., urtarrila-otsaila.
- Olaziregi, M.J., (1997): *Literatura eta irakurlea. Testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*, Doktorego Tesia EHU, Euskal Filologia Saila, Gasteiz.
- Sarrionandia, J., (1985): *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea.
- SUSA aldizkaria, (1985): “Iraultza eta literatura”, Donostia, 14-15.zkiak., uztaila.
- Torrealdai, J.M., (1997): *Euskal kultura gaur, liburuaren mundua*, *Jakin*, Donostia.
- Viala, A., (1985): *Naissance de l'écrivain, sociologie de la littérature à l'âge classique*, Ed. Minuit, Paris, collection Le Sens commun.
- Uria & Inurrieta, (1982): “EUSKAL literatura? euskal LITERATURA? LITERATURA?”, *Susa* 5, apirila, 16. or.
- Zabala, J.L., (1996): “Hemendik 25 urtera izango ditu euskal literaturak arazo benetan latzak”, *Egunkaria*, 1996-12-4, 30-31. or.